



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

HERRIKO OSASUN EGOERARI BURUZ ZALDIBIAKO UDALAREN ADIERAZPENA

2020ean Covid-19aren pandemia hasi zenetik bizi izan duen une zailenetakoa bizitzen ari da Zaldibi 2021eko apirilean, hasierako etxeko derrigorrezko konfinamendu aldiaren ondoren garai zailena esango genuke.

3 astetan 140 herritar dira gaitzaz kutsatu direnak, hauen inguruko askok 10 eguneko berrogeialdi prebentiboa bete behar izan dute etxean, gehienak haurrak gainera, 7-8 herritarrek ospitale zaintza behar izan dute, Zainketa Intentsiboak ere bai kasu batean. Zaldibiako Udalak asistentzia eskaini die guztiei eta beren osasun egoeraren berri jasotzeaz gain, elikagaiak bermatu, hondakinak etxez etxe bildu eta beste edozein beharretarako gertutasuna eta bitartekoak eskaini dizkie.

Egun batetik bestera korapilatutako egoeraren aurrean Udalak hasiera-hasieratik eskatu dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari kutsatzeen transmisio-katea eteteko neurriak hartzeko, eta horretarako elkarlana eskaini ere bai, baheketa bat antolatzeko, adibidez. Herritarren artean ere gailendu den eskaera honi ezezkoa eman dio Osasun Sailak "irizpide epidemiologikoak" argudiatuta.

Herritarrei eta herrian diharduten sektore anitzetako eragileei ere egoeraren larriaz ohartarazi zaie lehen unetik, eskura ditugun kanal guztiak erabiliz eta elkar zaintzeko deia eginez. Hala, prebentzio neurriak indartu, gizarte-jarduerak murriztu eta zalantza sortzen dien edozein sintoma edo harreman izanez gero Osakidetzara deitzeko mezua zabaldu da, behin eta berriz.

Egoera zail hauetan tentsioa eta urtebeteko nekea ere nabariak izan dira: egunetik egunera gaitza etxe askotara zabaltzen ari dela ikustea, zepa britainiar honek duen kutsakortasun-maila handia, herriko txikiengan izan duen zabalpena eta hori dela eta haur hauek bizi behar izan dutena, ospitaleratzeak, Aste Santuko oporretan herrian geratu behar izatea, 4. olatuaren itzala, pandemia aurreko egoerara itzultzeko dugun gogoia, neurri gehigarriak ez hartzeagatiko haserreak eta jarrita daudenak ez betetzeagatik sortutakoak, askori esan bai baina iristen ez zaien txertoa, egunero ziurgabetasunean esnatzearen nekea...

Honen baitan, hiru gertakari ezberdin aipatu nahiko genituzke bereziki, azken aste honetan bizi izandakoak hirurak. Larriena, 2021eko apirilaren 7an udal ordezkari baten etxe atarian arraultzak bota zituzten norbaitzuk. Egun berean Lardizabal eskolara sartu eta hainbat eskola material frontoian zehar barreiatu zituzten eta 2021eko apirilaren 10eko gauean herriko plazan musika, petardo eta guzti festan ibili ziren beste zenbait. Ez



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

dugu uste halakoek egun bizi dugun egoerari eta aurrean dugun erronkari batera eta elkartasunez erantzuteko bidea errazten dutenik.

Eta tentsio eta neke horiek azaleratzea naturalena izan badaiteke ere, duela urtebeteko konfinamenduan hasi eta gaur arte esanez gatoz, denon artean gainditu beharreko erronka dugula aurrean dugun hau eta elkar zaindu eta babestu behar garela.

Bizi dugun egoera honen baitan, beraz, Zaldibiako Udaleko Udalbatzak, honakoa adierazten du:

1. Zaldibian bizi dugun egoera larriari aurre egiteko, Zaldibiako Udalak gaitzak eragindako herritarrei gertutasuna eta babesa erakusteaz gain, eskura dituen bitarteko guztiak jartzen jarraituko du kutsatze katea eteteko.
2. Neurri berean, udal ordezkariok saiakera honetan murgiltzeko konpromisoa hartzen dugu eta baita elkarbizitza eta herritarren elkarrekiko babesa elikatzeko konpromisoa ere. Geurekiko elkarbizitza, errespetu eta babes berbera eskatzen diegu era berean herritarrei.
3. Osasun Sailak erantzun ez dizkion eskaerak berriro egingo ditu Zaldibiako Udalak udal batzar honen izenean, hala nola, herriko egoerari buruzko informazio eguneratua jasotzea eta datozen egunetan Osasun Sailak Zaldibiko egoerari begira duen estrategia zehazteko eskatuko dizkio.
4. Zaldibitarrei, azken bi asteetan bereziki azpimarratzen ari garen mezuak helarazten jarraituko du Udalak, kutsatze katea eteteko elkarlanaren baitan ezinbestekoa izango delako. Prebentzio neurriak betetzea, edozein zalantzaren aurrean proba egiteko eskatzea eta kutsatuz gero Osakidetzarekin elkarlanean aritzea dira eskura ditugun tresnak, beraz momentuz hauei heltzea beste modurik ez dugu, ***zukati ta danokati***.
5. Bukatzeko, esker mezua eman nahi diegu elkar zaintzen ari diren herritarrei eta aurrera jarraitzeko bultzada eta animoa ere helarazi nahi dizkiegu. Kantuak dioen bezala, "etorriko da egun berria, ez dago urrun udaberria!"

Zaldibia, 2021eko apirilaren ___an